

## IBILBIDEAREN DESKRIPZIOA

Ibilbidea sortzerakoan, Bizkaiko itsasaldeko mendiak maitatzen irakatsi ziguten bazterrak gogoratu nahi izan ditugu. Horretarako zera egingo dugu: Bakiotik abiatuta, bermeotar gailurrak diren Garbola eta Burgoa egin, Gaztelugatxe ikusgai duten itsas-labarretan ibili eta Bakiora itzuli.

Abiapuntua: Zubiaurrealdeko aparkalekua (8,57m) (Zubiaur, Bakio), Ojaorta/Estepona erreka eskuinaldean dugula. Eskuinaldean utziko ditugu bi zubi eta bi bide. Hurrengo bidegurutzean (Barturengoko, 31,87m) ezkerretara jo -Bisaldera bidean, Lorrea eskuinaldera utzita- eta berehala, hasieratik 12 minutura, Done Martie baselizaren aurretik pasatuko gara (64,72m), honako inskripzioa duena: “San Martin landako ermita 1513an be aitatuza izan zen. Ermitako kofradiak ekandu zaharrei eutsi deutse”. Gero, ezkerraldera bide bat utziko dugu eta hurrengoan, Bekozaituan (87,81m), eskuinalderako pista hartuko dugu, Bisalderen seinalea ezkerraldean utzita. Pista lokaztuta dago egurraren hustiapena dela medio. Basoan gora doa; urrunean eskuinaldean Jata mendia izango dugu. Bermeorekiko muga pasatu bezain laster Txaralde ur-latsa pasatuko dugu (214,71m), hasieratik 40 bat minutura. Garai batean berton zabortegi bat zegoen. Beti aldapa leunean gora, basoan, Txaralderako jaitsiera eskuinaldean utzita; gerotxoago ate bat pasatuko dugu eta bide bat ezkerraldera utzi. Bideari beste 30 minutuz ekin eta Mañugoikoara (414,58m) helduko gara. Bertatik Sollube mendia ikusgai izango dugu eskuinalderantz.

Mañugoikoan ezkerralderako bidea hartu Garbolara igotzeko, Sollube atzean utzirik. Bidexka honi jarraitu eta, eskuinalderanzko bihurgunean, ez desbideratu ezkerreko adarretik. Bainamamaieran bai: bidexka utzi eta estuago bat hartuta, 10 minutuan Garbola tontorrera iritsiko gara (476,63m), hasieratik ordubete eta hogein minutura.

Garbola tontorretik bidexka estu hau atzera jaitsita, lehengo bide berean aurrera egingo dugu. Mendi-bizkarretik jaitsi, zenbait pista gurutzatu, eta beti mendi-bizkarrean aurrera, harik eta 14 minutuan gas-seinaleak (hori koloreko txapak) dituen pistaraino. Zumarretakolandatik (365,64m) pasatuko gara -Burgoa ikusten da, baita Axnabarraren antena, aurrean ezkerraldean- Goikoganatik (404,83m) bide lauan jarraituko dugu eta 23 minutu pasata Burgoakolandeara helduko gara -eskuinaldera Bermeoren eta itsasaldearen ikuspegi ederra- eta bertotik zuzen, 8 minutuan, Burgoara (449,68m), bide labur baina pikoan gora. Garbola gainetik 45m, eta hasieratik 2 ordu eta 5 min.

Burgoa gainetik bai Bermeo aldera bai Bakio aldera ditugu ikuspegiak. Gainera aurrealdean Axnabarraren antena, gure hurrengo helmuga, ageri da. Bertarantz hurbilduz mendi-bizkarra jaitsiko dugu, lehen genekarren norabide berean, harik eta 10 minuto geroago, Axnabarrera (434,02) garamatzan pista hartu arte. Tontorretik 50 bat metrora pasatuko gara, tontorra eskuinaldean utzita.

Hemendik itsasaldera arin jaisten den pistan jarraituko dugu, Bakioko kostalde polita begien aurrean dugula. 800 bat metro eginda, 20 bat minutu, eskuinalderako desbideratze dago (311,42m), eta honek eramango gaitu Gaztelugatxeko Donibane ikusteko parada ederra ematen duen leku batera. Argazkiak egin eta bidera itzultzeak bi minutu kenduko dizkizue.

Bidera itzulita, beherantz jarraituko dugu harik eta, 15 minuturen buruan, Done Pelaio baseliza erromanikora (190,26m) [1] heldu arte, Bakion, hasieratik 2ordu eta 50 minutura. “XII. mendeko baseliza da, inguru osoa estaltzen dion egurrezko arkuea duena, oso ezaugarri arrunta berau Bizkaiko eliza eta baselizetan. Bere erdiarokotasunaren seinalerik argiena tenpluaren absidea apaintzen duen leihu fin leuna dugu, apaingarri geometriko eta begetalekin”<sup>1</sup>. Leku honek ondo merezi du miresteko geldialdi bat, are gehiago iturria duela aintzat hartuta.

Bidea, ordea, aurrera doa. Bidera itzuliko gara, baseliza ezkerretara topa dugun puntura. Hemen eskuinaldera joko dugu, hilerriaren ondoko bidexkan aurrera, Done Pelaio atzean utzita.

180 metro egin eta Bakiotik Bermeorako errepidean azalduko gara; gurutzatu dezagun, kontu handiz gurutzatu ere, arriskutsua baita oso, ikusgarritasunik eta oinezkoentzako pasabiderik gabekoa.

Errepidea gurutzaturik, Urizarretara (178,13m) jaitsiko gara -Eneperi jatetxea dago bertan- eta, aurretik pasatuta, jarraituko dugu itsasaldeko errepide txikitik, jatetxea eskuinaldean eta beronen aparkalekuak ezkerraldera dituen errepidetik alegia. 150 metro geroago, bide bat dago eskuinaldean, Kastillora (174, 64 m) eramango gaituena, itsas-labarraren gainean kokatua (erorketa bertikalean). Bertatik Gaztelugatxeko Donibaneren beste ikuspegi eder bat dugu, 10 minutu Done Pelaiotik eta 3 ordu hasieratik.

Atzera errepide txikira itzulita, bertatik Bakiorantz jaitsiko gara. Bihurgune, igoera eta jaitsieren artean paisaiaz gozatzen ibiliko gara. 20 minuturen buruan, Atxulorako desbideratzearen (40,47m) aurretik pasatuko gara; haitzulo honek itsasoaren gaineko labarrera irteera dauka. Ikuspegiak miretsiz Bakiora helduko gara 40 minutuan, ibilbidea hondartzatik jarritzeko, gure ibilbidearen amaieraraino. Guztira, 4 orduko bidea Bakioraino. Eta 4 ordu eta 15 m Zubiaurreraino.

## DESCRIPCIÓN DEL ITINERARIO

Este itinerario tiene la intención de unir la montaña y el mar, y recordar rincones de Bizkaia en los que aprendimos a amar los montes de la zona costera. Partiendo de Bakio, pasaremos por las cimas bermearnas de Garbola y Burgoa, llegaremos hasta los acantilados sobre San Juan de Gaztelugatxe, y volveremos a Bakio.

Salimos del aparcamiento de Zubiaurrealde (8,57m) en Zubiaur, Bakio. Dejamos dos puentes y dos desvíos a la derecha. En el siguiente cruce, Barturengokoia (31,87m), iremos hacia Bisalde, pasando enseguida, 12min del inicio, por la ermita de Done Martie (San Martin) (64,72m) que tiene la siguiente leyenda: "San Martin landako ermita 1513an be aitatuza izan zen. Ermitako kofradiak ekandu zaharrei eutsi deutse". Dejaremos un desvío a la izquierda y en el siguiente, Bekozaitua (87,81m), tomaremos la pista de la derecha —dejando la señal de Bisalde a la izquierda—. La Pista, asciende por el bosque. Tras cruzar la muga con Bermeo, pasaremos el arroyo Txarale (214,71m) donde había un vertedero, hoy día reciclado, unos 40min del inicio. Seguimos subiendo suavemente por el bosque, dejamos la bajada a Txarale a la derecha; pasamos una puerta, ignoramos un camino a la izquierda; y en 30min más, llegaremos a Mañugoikoa (414,58m) donde divisaremos a la derecha el monte Sollube.

En Mañugoikoa, tomamos un camino a la izquierda, hacia Garbola. Seguimos sin desviarnos por un ramal a la izquierda cuando hace una curva a la derecha; hasta que tomamos uno más estrecho, a la izquierda, que nos lleva a la cima del Garbola (476,63m) en 10min. 1h 20min desde el inicio.

Desde Garbola, retornamos al camino que traímos para continuar por él. Descendemos por la loma, y cruzamos varias pistas, hasta llegar en 14min a la que lleva los indicadores de gas, con una chapa amarilla. Pasamos por Zumarretakolanda (365,64m) —se divisa el Burgoa y la antena de Axnabarra hacia delante y a la izquierda —, seguimos llaneando por Goikogana (404,83m) y en 23min más, llegamos a Burgoakolande (399,93m) desde donde subiremos directos al Burgoa (449,68m) en 8min, por una subida corta pero empinada. 2h 5min desde el inicio.

Al norte, se divisa la antena del Axnabarra hacia donde nos vamos a dirigir. Descendemos la loma siguiendo la dirección que traímos, hasta tomar una pista que en 10min nos acercará al Axnabarra (434,02m). Pasaremos a unos 50m de la cima, que quedará a nuestra derecha.

Seguiremos la pista que desciende rápidamente. Al cabo de unos 800m, unos 20min, hay un desvío a la derecha (311,42m) que nos lleva a un paraje desde el que podemos admirar

una bella vista de San Juan de Gaztelugatxe. Sacar fotos y volver al camino os llevará 2min.

De vuelta al camino seguiremos hasta la ermita románica de Done Pelaio (San Pelaio) (190,26m) de Bakio, del siglo XII [1]. Este lugar bien merece una parada para admirarlo y porque además dispone de fuente.

En este punto, tomamos a la derecha por la senda que discurre junto a la tapia del cementerio, dejando San Pelaio a nuestra espalda. Recorridos 180m llegaremos a la carretera de Bakio a Bermeo, que debemos cruzar.

Tras hacerlo, descendemos a Urizarreta (178,13m) y continuamos por la pequeña carretera costera que discurre con el restaurante Eneperi a la derecha y sus aparcamientos a la izquierda. Al cabo de 150m hay un camino a la derecha que nos lleva en 2 min a Kastillo (174,64m) situado sobre el acantilado —en caída vertical— desde donde podemos admirar la costa.

Volvemos sobre nuestros pasos a la carreterita, y descendemos por ella en dirección a Bakio, a donde llegaremos en 40min admirando el paisaje para continuar por el paseo de la playa hasta el final de nuestro recorrido. En total, 4h de recorrido hasta Bakio. Y 4h 15min hasta Zubiaur.

[1] <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eu/kultur-ondarea/san-pelaio-baseliza/>